



Surf eta naturari buruzko film laburren lehiaketa

ARAUAK

Lehiaketa hau 2015eko Sopela Kosta Fest jaialdiaren programazioaren barnean antolatuta dago, eta helburua du surfa eta natura sustatzea.

Hain zuzen, surf praktika berritzaileenak eta naturarekin duten harremana erakusten duten sormen lan onenak nabarmenduko dira.

FILM LABURREN BALDINTZAK

- Ezinbestekoa da gaia surfa eta natura izatea.
- Lanak edozein generotakoak izan ahal izango dira, fikziozkoak, dokumentalak... eta kategoria bakar batean sartuko dira.
- Gehienez ere 10 minutuko iraupena duten film laburrak baino ez dira onartuko.
- Aurkeztutako lan guztiek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoak izan beharko dute.
- Egilea obraren erreproduktzio eskubide guztien jabea eta erantzulea izango da, eta, horrenbestez, ondoriozko erantzukizun orotatik salbuetsita daude lehiaketaren antolatzaileak.
- Egile bakoitzak lehiaketa honetan aurkez dezakeen lan kopuruari dagokionez, ez dago mugarik.
- Aurkeztutako film laburrak lehendik jendaurrean erakutsitakoak eta beste lehiaketa batzuetan parte hartutakoak izan daitezke.
- 2015eko irailaren 24an, osteguna, jakinarazi eta emango dira film labur irabazleak, Sopelako Udaletxe plazan, Sopela Kosta Fest jaialdiaren barnean.
- Jaialdiak bere egiten du aurkeztutako eta hautatutako film laburrak Kurtzio Kultur Etxean emateko eskubidea, Sopela Kosta Fest lehiaketaren ondoko egunetan, saio batean edo bitan.
- Jaialdiak, era berean, lehiaketa honetan aurkeztutako eta hautatutako film laburrak jaialdiarekin berarekin lotutako sare sozialetan erabiltzeko eskubidea bere egiten du.

LANAK EMATEA ETA HAIEN FORMATUA

- Lanak aurkezteko azken eguna abuztuaren 14a izango da, egun hori barne.
- Parte hartzeko, ezinbestekoa da izen-emate orria betetzea.
- Izena ematea doakoa da.
- Lanak aurkeztu ahal izango dira, edo posta elektronikoz (kultura@sopela.eus), edo Kurtzio Kultur Etxean bertan (Mendieta kalea, 11 – 48600 Sopela).
- Film laburrak edozein formatutan eta bereizmenetan aurkeztu ahal izango dira. Gehienbat, HD(1280x720)/Full-HD(1920x1080) bereizmenean eta mp4 formatuan. Dena den, antolatzaileek eskubidea izango dute egileari formatuz aldatzeko eskatzeko, zailtasunak badituzte.

SARIAK

Surfarekin, naturarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako pertsonen osatutako batzorde batek hautatuko ditu lan finalistak eta irabazleak. Batzordearen erabakia apelaezina izango da. Gainera, sarietako baten bat eman gabe uzteko eskubidea du.

Botoak emango dira kalitate teknikoko, sentsibilitate artistikoko, sormeneko eta gaitasun narratiboko irizpideak aintzat hartuta. Hautaketa batzordearen erabakiak, behin betiko epaia barne, gehiengo sinplearen arabera hartuko dira.

Irailaren 24ko galan emango dira jakitera sariak eta film labur irabazleak, Sopela Kosta Fest jaialdian, eta ondoren <http://www.sopelakostafest.com> webgunean kaleratuko dira.

Lehiaketa honetan ematen diren sari guztiak "erosteko txartel" formatukoak izango dira, eta, beraz, 2015ean, Sopelako merkataritzako establezimenduetan eta/edo jatetxeetan erabiltzekoak izango dira, Udalarekin elkarlanean aritzea onartzen dutenetan, zehazki.

- SOPELA KOSTA FEST lehen saria film labur onenari: **500€**.
- BERTON saria bertako errealizadoreen arteko film labur onenari, Sopelan errolatuta dauden parte-hartzaileentzat: **250€**.
- Saria genero ikuspegia erakusten duen film labur onenari, aintzat hartuta errealizadorearen izaera eta/edo film laburrak erakusten duen gaia: **250€**.

ARGIBIDE GEHIAGOTARAKO

Kurtzio Kultur Etxea - 944 065 505 - kultura@sopela.eus

Surf eta naturari buruzko film laburren lehiaketa

IZENA EMATEKO ORRIA

Film laburraren izenburua:	
Egilea:	
Ekoiztetxea:	
Ekoizpen urtea:	Formatua:
Iraupena:	Generoa:
Jatorrizko hizkuntza:	Azpitutuluak:
Sinopsia:	

HARREMANETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
Herria:	Probintzia:
Posta kodea:	Telefonoa:
Helbide elektronikoa:	

Izena emateko orri hau betetzeak berekin dakar lehiakideak lehiaketa honetako oinarriak osorik onartzea eta bai:

1. Parte-hartzaileak baimena ematea aurkeztutako lana zabaltzeko.
2. Saria lortzeko aukera duenak bermea ematea, antolatzailearentzat indemnitarekin, bera dela egilea eta aurkeztutako lana jatorrizkoa dela, eta, beraz, ez dela beste baten edo bere lan baten, aurretik baden lan baten, kopia edo aldaketa osoa edo partziala.
3. Lehiakideak bermea ematea, antolatzailearentzat indemnitarekin, lanaren gaineko ustiatze eskubide guztien titulartasunaz, eskusiban, eta kargarik eta mugarik gabe, eta beste batzuen aurrean.

Era berean, lana aurkezteak berekin dakar egileak lehiaketatik ez kentzeko konpromisoa hartzea.

Sinadura: